IRAGARPENA, GHI-250/89-P06 espedienteari dagokionez hartutako akordioari buruzkoa. 3675

IRAGARPENA, GHI-040/88-P06-A espedienteari dagokionez hartutako akordioari buruzkoa. 3676

IRAGARPENA, GHI-199/89-P05 espedienteari dagokionez hartutako akordioari buruzkoa. 3677

ANUNCIO relativo a acuerdo adoptado en el expediente GHI-250/89-PO6. 3675

ANUNCIO relativo a acuerdo adoptado en el expediente GHI-040/88-P06-A. 3676

ANUNCIO relativo a acuerdo adoptado en el expediente GHI-199/89-P05. 3677

GETXOKO UDALA

IRAGARPENA, hiritartzeko gai den «I-Etxezuri» Sektorearen Zati Planari hasiera bateko onarpena ematen dion akordioari buruzkoa. 3677

AYUNTAMIENTO DE GETXO

ANUNCIO relativo al acuerdo de aprobación inicial del Plan Parcial del Sector Apto para urbanizar I-Etxezuri. 3677

**MURTZIA ESKUALDEKO AUTONOMI ELKARTEA HAZIENDA KONTSEILARITZA ZERGETARAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA ZERGEN KUDEAKETARAKO ZERBITZUA**

IRAGARPENA, bizileku jakinik ez duten zenbait zergapekori likidazioen berri jakinerazteko dena. 3678

**COMUNIDAD AUTONOMA DE LA REGION DE MURCIA CONSEJERIA DE HACIENDA DIRECCION GENERAL DE TRIBUTOS SERVICIO DE GESTION TRIBUTARIA**

ANUNCIO sobre notificación de liquidaciones a contribuyentes en paradero desconocido. 3678

# Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## KULTURA ETA TURISMO SAILA

1203

94/1990 DEKRETUA, apirilaren 3koa, Euskal Herriko Kirol Elkarte eta Federazio errejistroaren antolakuntza eta funtzionamenduari buruzkoa.

Autonomia Elkarteko Kirol elkarte eta federazioek Euskal Herriko Kirol Elkarte eta Federazio Errejistroan izena eman beharra daukatela ezartzen du Soin Kultura eta Kirolari buruzko otsailaren 19ko 5/1988 Legeak.

Lege hori garatzen duten beste erabaki batzuek auraupetzen dute aipaturiko elkarteen izenemate prozedura. Hori dela eta errejistro egitura eta bidea araubidez finkatzea ezinbestekoa da. Errejistroaren antolaketa eta funtzionamendu egokia Euskal Herriko Autonomi Elkartearen kirol politikaren garapenerako oinarri-oinarrizkoa da, izan ere, kirol elkarte eta federazioen izatea jasotzen eta printzipio demokratikoei jarraiki legez funtzionatzen dutela ziurtatzen bait da.

Dekretu honek, zenbait kirol elkarteren izaera kontutan harturik, hiru sekziotan egituratzen du Errejistroa. Bestalde, agiri-bidezko jaurpidea eta erakundeen izenemate, estatutuen aldaketa, desegite eta izenemateak baliogabetzeko prozedura ezartzen da.

Abenduaren 19ko 5/1988 Legearen Lehenengo Azken Erabakiak Eusko Jaurlaritzari aitortzen dion aginpideaz baliatuz, Kultura eta Turismo Sailburuak proposaturik, Gobernu Kontseiluak, 1990.eko apirilaren 3an egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

## DEPARTAMENTO DE CULTURA Y TURISMO

1203

DECRETO 94/1990 de 3 de Abril, de organización y funcionamiento del Registro de Asociaciones y Federaciones Deportivas del País Vasco.

La Ley 5/1988 de 19 de febrero de la Cultura Física y del Deporte establece la obligación de asociaciones y federaciones deportivas de la Comunidad Autónoma de inscribirse en el Registro de Asociaciones y Federaciones Deportivas del País Vasco.

Siendo el procedimiento de inscripción de las referidas entidades materia regulada por otras disposiciones de desarrollo de la Ley, se hace preciso determinar reglamentariamente la estructura y mecánica registral. La correcta organización y funcionamiento del Registro, plasmando la existencia de asociaciones y federaciones deportivas y asegurando su funcionamiento legal conforme a principios democráticos, debe considerarse como pieza fundamental para el desarrollo de la política deportiva de la Comunidad Autónoma Vasca.

El presente Decreto estructura el Registro en tres secciones dependiendo de la naturaleza de las diversas entidades deportivas. Se establece por otro lado el Régimen documental y el procedimiento para inscripción de entidades, modificación de estatutos, disolución y cancelación de inscripciones.

En virtud de la competencia que atribuye al Gobierno Vasco la Disposición Final Primera de la Ley 5/1988 de 19 de Diciembre, a propuesta del Consejero de Cultura y Turismo, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 3 de abril de 1990,

ERABAKI DUT:

*1. atala.*— Kirol Elkarte eta Federazio Errejistroa, bertan izena ematen duten kirol elkarteen izaera eta xedea kontutan harturik, hiru sekzioz osatua dago:

a) Lehen sekzioa: klubak.
b) Bigarren sekzioa: elkarteak.
c) Hirugarren sekzioa: federazioak.

*2. atala.*— 1. Errejistroaren agiri-bidezko jaurbidea honako hau da:

a) Errejistro-liburua.
b) Elkarte-liburua.
c) Liburu osagarriak.
d) Agiri-bilduma.

A) Errejistro-liburuan, orden kronolojiko eta zenbakera koerlatiboari jarraiki idatziko dira klubek, elkarteek eta kirol federazioek egingo dituzten eskaerak, haiekin batera bidalitako agiriak aipatuz, doakion elkartearen izena eta dagokion liburuan aurkitu ahal izateko behar adina aipamen.

B) Elkarte-liburuan, izenematea, estatutu aldaketak, desegite edo etetea eta kirol elkarte bakoitzaren herri-erabilmenerako aldarrikapena jasoko da, Dekretu honetako hurrengo ataletan aipatutako puntuak erasoz.

C) Errejistro bidea errazteko behar adina liburu osagarri edukiko ditu Errejistroak.

D) Errejistroari atxikiriko bildumak ere egongo dira eta zenbait ohar egiteko balio dezaten eskabideak eta agiriak artxibatuko dira bertan.

2. Oharrak jasotzat emango dira dagokion liburuan idatzi eta Errejistroaren arduradunak izenpetu eta bertako zigilua jarritakoan.

3. Errejistro-liburu guztiek Kiroletako Zuzendariak izenpeturiko irekitze-eginbidea beharko dute, orri kopurua adierazi beharko da eta orri guztiak zenbaturik eta zigilaturik egon beharko dira.

*3. atala.*— Ondoren adierazitakoak ere Errejistroan jaso beharko dira:

a) Elkarte eta federazioen eratzea.

b) Estatutuen aldaketak.
c) Elkarte eta federazioen etete edo desegitea.

d) Klub eta federazioak herri-erabilmenerako aldarrikatzea.

*4. atala.*— Eratze-lerrokapenetan honako puntu hauek adierazi beharko dira:

a) Aurkezpen-zenbakia
b) Izena
c) Eratze-agiriaren data
d) Elkarte-egoitzaren helbidea
e) Praktikatu ditzaten kirol modalitateak
f) Errejistro zenbakia eta data

*5. atala.*— Klub batek, otsailaren 14eko 29/1989 Dekretuaren 66 a) atalean aurrikusitako legezko nortasundun Elkarteetariko batek edo kirol federazio eratu berri batek Erregistroan izena emateko honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu ale bitan:

DISPONGO:

*Artículo 1.*— El Registro de Asociaciones y Federaciones Deportivas consta de tres secciones, atendiendo a la naturaleza y finalidad de las entidades deportivas que en él se inscriban:

a) Sección primera: clubes.
b) Sección segunda: agrupaciones.
c) Sección tercera: federaciones.

*Artículo 2.*— 1. El régimen documental del Registro es el siguiente:

a) Libro de Registro.
b) Libro de Entidades.
c) Libros Auxiliares.
d) Legajo de documentos.

A) En el libro de registro se anotarán por orden cronológico y con numeración correlativa, las solicitudes que formulen los clubes, agrupaciones y federaciones deportivas, mencionando los documentos que se acompañan, la denominación de la entidad interesada y la referencia suficiente para su localización en el libro correspondiente.

B) En el libro de entidades se hará definitivo asiento de la inscripción, modificaciones estatutarias, disolución ó suspensión así como la declaración de utilidad pública de cada entidad deportiva, haciendo constar los extremos señalados en los artículos siguientes de este Decreto.

C) El Registro contará con los libros auxiliares necesarios para facilitar la mecánica registral.

D) Anejos al Registro y formando parte del mismo existirán legajos en los que serán archivadas las solicitudes y demás documentos que sirvan de base para practicar los diferentes asientos.

2. Cada asiento se cierra en la fecha en que se practica, con la firma del encargado y el sello del Registro.

3. Los libros de registro deben llevar la diligencia de apertura firmada por el Director de Deportes, con indicación de los folios que contienen, todos los cuales tendrán que estar numerados y sellados.

*Artículo 3.*— Serán objeto de inscripción en el Registro:

a) La constitución clubes, agrupaciones y federaciones deportivas.
b) Las modificaciones estatutarias.
c) La suspensión ó disolución de clubes, agrupaciones y federaciones deportivas.
d) La declaración de utilidad pública de clubes y federaciones.

*Artículo 4.*— En las inscripciones de constitución deberán anotarse los siguientes extremos.

a) Número de presentación
b) Denominación
c) Fecha de Acta Fundacional
d) Domicilio de la Sede Social
e) Modalidades deportivas que practiquen
f) Número y fecha de inscripción

*Artículo 5.*— La inscripción en el Registro de un Club, Agrupación con personalidad jurídica de las contempladas en el artículo 66.a) del Decreto 29/1989 de 14 de febrero ó Federación Deportiva de nueva creación exige la presentación por duplicado de la siguiente documentación

a)Errejistroan inskribatzeko eskatuz Kiroletako Zuzendariari zuzendutako Eskabide-orria.

b) Eratze-agiria.

c) Indarrean dauden erabakien arabera idatzitako estatutuak.

2. Otsailaren 14eko 29/1989 Dekretuaren 66 a) atalean aurrikusitako legezko nortasunik gabeko Elkarte eratu berru batek Erregistroan izena emateko honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

a) Kiroletako Zuzendariari zuzendutako idazki bat Erregistroan izena emateko eskaerarekin batera.

b) Elkartea sortzailearen aginpidedun organoaren akordio osoaren kopia.

c) Iharduera barne-arauak.

*6. atala.*– 1. Honako hau eraso beharko da lehen aipatutako atalaren 1. ahapaldian aurrikusitako erakundeen estatutuen aldaketak jasotzen dituzten erregistro-oharretan:

a) Aldatutako puntua

b)Aldaketaren data: dagokion Batzar Orokorrak onartu zuenekoa izango da.

c) Estatutuen aldaketaren inskripzio-data.

Aldaketa Errejistroan jasotzeko, kideen Batzar Orokorraren Agiriaren aldaki legeztatua aurkeztu beharko da eta onartutako aldaketa argi eta garbi agertu beharko.

2. Lehengo atalaren 2. ahapaldian aurrikusitako erakundeen barne iharduerarako arauetako aldaketetan eraso egin behar da laburpena eta aldaketa egindako eguna, doakion aginpidedun organoaren akordioaren legeztatutako kopia aurkeztuz.

*7. atala.*– Kirol elkarte edo federazioren bat eten edo deseginez gero, ondoren adierazitakoak jaso beharko dira Errejistroan:

a) Etete edo desitearen arrazoia.

b) Data.

c) Ondarearen legezko ezarpena.

d) Etete edo desegitearen inskripzio-data.

*8. atala.*– Inskribaturiko elkarteak deseginez gero izenemateak baliogabetu egingo dira.

Dekretu honetako 9. atalean aurrikusitako eraginak utzeraziko ditu baliogabetzeak.

*9. atala.*– Izenematea, doain izango delarik, Kultura eta Turismo Sailak eman ditzan onurak jaso ahal izateko ezinbesteko baldintza da.

*10. atala.*– Errejistroaren arduraduna Errejistroaren funtzioanemandu egokiaz arduratu behar da, izenematearekin zerikusirik duten agiriak kalifikatu behar ditu, eta lerrokatuak izan daitezkeen erabaki, beraien kirol-izarea kontutan harturik.

*11. atala.*– 1.Euskal Herriko Kirol Elkarte eta Federazio Errejistroa publikoa da.

2. Edozein norbanakok edo legezko nortasundunek, publikok zein pribatuk idatziz eskatuz gero, dagozkion izenemateen egiaztagiriak egingo ditu Errejistroaren arduradunak.

a)Instancia dirigida al Director de Deportes con la solicitud de inscripción en el Registro.

b) Acta fundacional.

c) Estatutos redactados conforme a las disposiciones en vigor.

2. La inscripción en el Registro de una agrupación sin personalidad jurídica de las contempladas en el artículo 66.b) del Decreto 29/1989 de 14 de febrero de nueva creación exige la presentación por duplicado de la siguiente documentación:

a) Instancia dirigida al Director de Deportes con la solicitud de inscripción en el Registro.

b) Copia del acuerdo expreso del órgano competente del ente matriz por el que se crea la agrupación.

c) Normas internas de funcionamiento.

*Artículo 6.*– 1. En los asientos registrales que recojan las modificaciones estatutarias de las entidades contempladas en el párrafo 1.° del artículo anterior deberá hacerse constar:

a) Extracto de la modificación

b)Fecha de la modificación, que será la de la aprobación de la misma por la Asamblea General correspondiente.

c) Fecha de inscripción de la modificación estatutaria.

Para la inscripción de la modificación en el Registro se deberá presentar copia legalizada del Acta de la Asamblea General de socios que exprese claramente la modificación aprobada.

2. En las modificaciones de las normas de funcionamiento interno de las entidades contempladas en el párrafo 2.° del artículo anterior deberá hacerse constar el extracto y fecha de la modificación presentando copia legalizada del acuerdo del órgano competente correspondiente.

*Artículo 7.*– La suspensión ó disolución de una asociación ó federación deportiva dará lugar a las siguientes inscripciones en el Registro:

a) Causa determinante de la suspensión ó disolución.

b) Fecha de la misma.

c) Aplicación legal de su patrimonio.

d) Fecha de inscripción de la suspensión o disolución.

*Artículo 8.*– La cancelación de las inscripciones se produce como consecuencia de la disolución de las entidades inscritas.

La cancelación implicará el cese de los efectos previstos en el art. 9 del presente Decreto.

*Artículo 9.*– La inscripción, que será gratuita, es requisito indispensable para optar a cualquier tipo de beneficios que pueda conceder el Departamento de Cultura y Turismo.

*Artículo 10.*– El encargado del Registro ha de velar por el buen funcionamiento del Registro, calificar los documentos sujetos a inscripción y decidir si pueden ser inscritos, atendiendo a la naturaleza deportiva de los mismos.

*Artículo 11.*– 1. El Registro de asociaciones y federaciones deportivas del País Vasco es público.

2.A petición escrita de toda persona física o jurídica, pública o privada, el Encargado del Registro expedirá certificaciones de las correspondientes inscripciones.

*12. atala.*— Errejistroan izena eman ondoren, arduradunak honako hauei jakin erazi beharko die:

a) Elkarteari
b)Kiroletako Kontseilu Nagusiaren Kirol Klub eta Elkarteen Errejistro Nagusiari.
c)Behar bezala izena emanik duten kirol federazioei, kirol federazioren baten izenemateak eragin diezaienean.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*— Kultura eta Turismo Sailburuari, Dekretu honetan erabakitakoa garatu eta ezartzeko beharrezko izan daitezen arau guztiak emateko baimena ematen zaio.

*Bigarrena.*— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadin biharamonean jarriko indarrean Dekretu hau.

Gasteiz, 1990.eko apirilak 3.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Kultura eta Turismo Sailburua,
JOSEBA ARREGI ARANBURU.

*Artículo 12.*— Efectuada la inscripción en el Registro, el encargado lo notificará:

a) A la entidad
b) Al Registro Central de Clubes y Asociaciones Deportivas del Consejo Superior de Deportes.
c) A las entidades deportivas que, debidamente inscritas, afecte directamente la inscripción de una federación deportiva.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*— Se autoriza al Consejero de Cultura y Turismo para dictar cuantas normas sean necesarias para el desarrollo y aplicación de lo dispuesto en el presente Decreto.

*Segunda.*— El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 3 de Abril de 1990.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Cultura y Turismo,
JOSEBA ARREGI ARANBURU.

# Agintariak eta Langilegoa
# Autoridades y Personal

## Oposaketa eta Lehiaketak
## Oposiciones y Concursos

### LEHENDAKARITZA, ZUZENTZA ETA AUTONOMI GARAPENERAKO SAILA
### *HAEE*

**1204**

**ERABAKIA, 1990.eko apirilaren 12koa, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Zuzendariarena, zeinen bidez bertan behera uzten baita Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren zerbitzura sartzeko 1990.eko urtarrilaren 30eko Aginduaren bidez deitutako lehiaketa-oposaketa libreko saioak egitea.**

Euskal Autonomi Elkarteko Zuzentza Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Liskarrauzietarako Salak, 1990.eko apirilaren 10eko Ebazpenaren bidez, bertan behera utzi zuen, kautela neurri gisa, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapenerako Sailburuaren 1990.eko urtarrilaren 30eko Agindua betetzea, ehiaketa-oposaketa librearen bitartez betetzeko ziren lanpostuei zegokienez; ez, ordea, barne promoziorako eta langile ezinduentzat erreserbatutako lanpostuei dagokienez. Ebazpen hori beteaz, honako hau

XEDATU DUT:

*Lehenengoa.*— Bertan behera uztea 1990.eko urtarrilaren 30eko Agindua dela-eta deitutako aukeraketa saioak, zein apirilaren 17tik 21era bitartean, biak barne, egitekoak baitziren.

### DEPARTAMENTO DE PRESIDENCIA, JUSTICIA Y DESARROLLO AUTONOMICO
### *I.V.A.P.*

**1204**

**RESOLUCION de 12 de abril de 1990, del Director del Instituto Vasco de Administración Pública, por la que se suspende la celebración de las pruebas del concurso-oposición libre convocado por Orden de 30 de enero de 1990 para el ingreso como funcionario de carrera al servicio de la Administración de la Comunidad Autónoma.**

En cumplimiento del Auto de 10 de abril de 1990, de la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, por el que se adopta la medida cautelar de suspensión del cumplimiento de la Orden de 30 de enero de 1990 del Consejero de Presidencia, Justicia y Desarrollo Autonómico del Gobierno Vasco, en el objeto de la convocatoria referido a la provisión de plazas mediante sistema de concurso-oposición libre, no afectando a la convocatoria de las plazas de promoción interna ni a las plazas reservadas a personal minusválido,

RESUELVO:

*Primero.*— Suspender las pruebas selectivas convocadas, derivadas de la Orden de 30 de enero de 1990, cuya realización estaba determinada por Resolución de 3 de abril de 1990, para los días 17 a 21 de abril, ambos inclusive.